

**'Made in Galiza' euskaraz**

SÉCHU SENDE soziolinguista galiziar-  
rrak argitaratutako liburua da *Made in Galiza*. Txerra Rodriguezek bere  
blogean jakinarazi digu euskarara  
itzuli duela eta irailean Txalaparta  
argitaletxearekin aterako duela.  
Liburuaren hitzaurrea irakur daiteke  
euskaraz Rodriguezen blogean  
(www.blogak.com/garaigoikoa).

Rodriguezek bere blogean adie-  
razi duenez, "hizkuntza kontuetan  
beti ere, lepoa ekialdera bihurritzen  
dugu gehienetan. Gure ispilua ez  
da izaten askotan mendebaldean

dagoen herri galiziarra" eta gonbite  
txikia egin nahi izan du Senderen  
liburua itzulita. Handia da gero,  
ARGIAK ere ekialdera lehenago  
begiratzen du mendebaldera baino,  
baina aldizkari honetan, 46. orrial-  
dean, Nel Vidal Barral galiziarra  
elkarrizketatu dugu, hizkuntza kon-  
tuak hizpide.

Séchu Senderengana itzuliz,  
soziolinguista galiziarrek umorea  
asko erabiltzen du galegoari buruz-  
ko aurrejuzkuak eta topikoak han-  
kaz gora jartzeko, eta besteak beste,  
*Guía Sexual da Sociolingüística* liburua  
argitaratua du. Hori ere euskarara  
itzulita dago.

**605.000 euro gutxiago euskarazko hedabideentzat**

EUSKO JAURLARITZAK 4.875.000  
euro emango ditu euskaraz lan egi-  
ten duten prentsa, irrati, telebista  
eta Interneteko hedabideentzat. Iaz  
5.480.000 euro eman zituen.

Eguneroko prentsa inprimatuari  
zuzendutako sailean 1.820.000 euro  
emango ditu Jaurlaritzak. *Berriak*  
1.449.250 euro jasoko ditu, *Hernani-  
ko Kronikak* 31.523 euro, eta dozena  
erdi *Hitzek* gainerakoa.

Euskara hutsezko aldizkari inpri-  
matuei dagokienez bi azpi-multzo  
daude. Batetik, euskararen esparru  
geografiko osoan zabaltzen diren  
informazio orokorreko aldizkariak  
zein aldizkari espezializatuek  
1.137.500 euro jasoko dituzte. Tar-  
tean da, adibidez, 323.982 euro  
jasoko dituen ARGIA aldizkaria.

Bestetik, udalerrri, eskualde eta  
lurralde jakinetan zabaltzen diren  
informazio orokorreko aldizkariak  
704.000 euro jasoko dituzte. Diru  
kopuru horren zatirik handiena  
(200.000 euro inguru) *Goienak* jaso-  
ko du.

Internet bidezko hedabideek eta  
berri agentziek (irrati eta telebistak  
atal honetan sartzen dira) 485.500  
euro jasoko dituzte. Horien artean  
daude, besteak beste, Hamaika  
sarean egitasmoa (39.622 euro),  
Berria.info (37.187 euro),  
Argia.com (36.494 euro) eta Biz-  
kaie.biz (28.988 euro).



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz:  
[www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

TALAIAN

**ELA eta LABen arteko konponezina gainditu beharra**

LAB sindikatuak 45.000 afiliatu ditu, Euskal Herriko lurralde guztietako-  
ak. Duela lau urte baino ordezkartza zabalagoa du orain. Joan den  
asteen zortzigarren biltzerra egin du *Eraiki dezagun. Orain da garaia. Langileon Euskal Herria* leloarekin. Biltzerra egin da gizartean eta politi-  
kan testuinguru garrantzitsua dagoenean. Finantza eta ekonomia krisia  
larriagotzen ari da langabezia, pobrezia, bazterketa soziala eta marjina-  
zioa handitzen ari diren heinean. Era berean, gobernuek eta euren  
medioek sindikalgintza abertzalearen kontrako mezuak jaurtitzen dituzte.  
Eszenatoki politikoa aldatuz doa, ezker abertzalea sartzen ari baita Gipuz-  
koako Aldundia eta Donostiako Udala gisako erakunde garrantzitsuen  
gubernuan, eta Sortu ere legalizatu egin dute.

Testuinguru horretan, jadanik hainbat greba sustatu dituen sindikalgin-  
tza abertzaleak, zeregin asko dauka oraindik eredu ekonomiko, politiko eta  
sozial berriaren alde egiteko, beste fronte batzuek arbuizaten duten Euskal  
Herriaren subiranotasunaren errespetutik, gainera. Norabide horretan,  
LABen biltzarrak aliantza tekniko-estrategikoa proposatu du sindikalgintza  
abertzalean, beharrezkoak diren aldaketa politiko eta sozialek funtsezko  
zutoinak izan ditzaten. ELA eta LABen arteko ekintza bateratua hautsi egin  
da azken hilabeteetan. Biltzar honen ondoren, konponezin hori gainditu  
behar da. Bi sindikatu abertzaleen artean 150.000 afiliatu baino gehiago  
dituzte, aktibo garrantzitsua da. Sindikatuek eszenatoki honetan izan behar  
duten paperaz eta estrategiaz adostasunera iristea, Euskal  
Herriko etorkizunari egin dakiekeen ekarpen politiko onena  
litzateke. Horretarako, protagonismo oro albo batean utzi eta  
kapitalismoaren kontra zuzenean borrokatu behar dute.

Juan Mari Arregi



**LUA arkitektoak**  
hirigintza  
nirigintza aholkularitza  
udal planak  
urbanizazioak  
perifazioak  
balorazioak  
etxebizitza proiektuak  
birgaitzeak  
barne diseinua...

Rio Arga Kalea 28, 31014 Iruña  
Tel 948 13 26 97  
lua@luark.com